



*Debagoiena*

# **GARAPEN IRAUNKORRERAKO SAREA**



**OINARRIZKO ERRELATOA**

*2020ko apirila*

# DEBAGOIENA 2030 EGITASMOAREN OINARRIZKO ERRELATOA

## 1. DEBAGOIENA XXI. MENDEAN

Azken 60 urteetan bizitako eraldaketa sakonari esker **ongizate maila handia** lortu duen bailara batean bizi gara. Nazioartean ikertua eta neurri handi batean miretsia den prozesu komunitario bati esker jendarte ekitatibo, kohesionatu eta aurreratu bat eraikitzen jakin izan dugu, eta garai historiko horrek eman zuenetik bizitzen dihardugu oraindik ere. Baina XXI. mendeak erronka berriak ekarri ditu berarekin, eta zantzu gero eta argiagoak daude **aro berri baten atarian** egon gaitzkeela adierazten dutenak. **Erronka global eta konplexuen garaia** da bizi duguna, zalantzarik gabe gure bizimodu eta ongizatean inpaktu handia izango dutenak, eta lortutakoa galdu nahi ez badugu, **aro berrira moldatzera behartzen gaituztenak**.

## 2. XXI. MENDEA: ERRONKA GLOBAL ETA KONPLEXUEN GARAIA

Nazio Batuen IPCC erakundeak egindako txosten ezberdinek gero eta ageriago uzten dute bizi dugun garai historikoaren larritasuna. **Gizakiak kliman eragindako aldaketek gure zibilizazioa kolapsora eraman dezakete**, eta hamarkada gutxi batzuk baino ez zaizkigu gelditzen garapen eredia sakonki eraldatu eta klima aldaketaren ondorio suntsigarriak leuntzeko. Jada ezin daiteke gelditu, baina oraindik garaiz gaude lurraren beroketa 1,5 graduen azpitik mantendu eta azken 2.000 urteetan gizakiak eraikitakoa ez galtzeko. **Hurrengo hamarkada gakoa izango da** honetarako, hurrengo 10 urteetan hartzen diren edo hartzen ez diren erabakiek baldintzatuko dutelako gure zibilizazioaren etorkizuna.

Gainera, krisi klimatikoa **munduko ekonomia egiturazko aldaketa sakon batean** murgildurik dagoenean azaleratu da. Alde batetik, **Asiako herrialdeak gero eta indar handiagoa** hartuz doaz eta horrek ekonomia globalizatuaren ardatza ekialderantz mugitu du, Europa eta EEBB-ek orain

arte izan duen protagonismoa mehatxupean jarritz. Eta bestalde, **ekonomiaren digitalizazioak eta honi lotutako berrikuntza teknologikoek** (Big data, 5G sareak, adimen artifiziala, iot, blockchain, ...) **aldaketa disruptiboak eragingo dituzte** hainbat sektore ekonomiko eta industrialetan.

Europar **Komisioak**, parez pare ditugun erronken tamainaz kontziente izanda, **“European Green Deal”** moduan ezagutzen den itun anbiziotsua abiarazi du, 2.050 urterako Europa klimatikoki neutroa izango den lehenengo kontinentea bilakatu dadin. Itun honek Europaren hurrengo hamarkadetako garapen ekonomikorako estrategiaren oinarria izan nahi du, eta bertatik eratortzen diren politika eta zuzentarauak **aldaketa sakonak eragingo dituzte** **produzitzeko, kontsumitzeko eta bizitzeko** moduetan.

## 3. IRAUNKORTASUNA, ARO BERRIAREN PARADIGMA NAGUSIA

**Krisi klimatikoak garapen eredia berrasmatu eta iraunkortasuna erdigunean jartzera behartzen gaitu**. Jada ez da nahikoa balio ekonomikoa sortzea, horretarako balioa soziala edo balio naturala suntsitzen badira. **Garapena iraunkorra izango bada**, 3 baldintzak bete behar dira aldi berean: **balio ekonomikoa sortzearekin batera balio soziala ere sortzea ingurune naturala kaltetu gabe**.

Estatu, enpresa eta erakunde ezberdinak norabide honetan jartzeko helburuarekin **Nazio Batuak “Garapen Iraunkorrerako Helburuak: 2030 agenda”** bezala ezagutzen den ekimena abiatu zuen 2015. urtean. Lehen aldia da agenda ekonomikoa, soziala eta ingurugiroari dagokion agenda bakarrean uztartzen direla, eta lehen aldia da baita ere Estatu zein gizarte zibileko eragileez gain, enpresak ere interpelatuak direla, ez baitago garapen iraunkorrik eragile

ekonomikoen konpromiso eta inplikaziorik gabe. **Agenda anbiziotsu eta konplexu honen garapenerako eragile ezberdinen arteko lankidetzeta eta aliantzak ezinbestekoak izango dira.** Hau da, hain zuzen ere, Garapen Iraunkorrerako Helburuen garapenerako zorua. Administrazio publikoek, eragile ekonomikoek, hezkuntza eragileek eta eragile sozialek lankidetzeta eredu ez hierarkiko batean jarduteko kultura politiko berri bat garatu behar dute, instituzio publikoen lidergopean eraldaketa prozesuak behar duen **governantza eredu kolaboratiboa** eraiki ahal izateko.

Horretarako anbizioa eta ausardia izango duten **lidergotza konpartitu berriak** behar ditugu, porrota ikaste prozesuaren parte gisa ulertzetik **esperimentaziorako marko emankorrak eraikitzen jakingo dutenak.** Azken finean, inork ez baitaki tamainako erronkei nola aurre egin, eta zentzu honetan, esperimentazioa eta arriskuak hartzea prozesuaren parte izango dira ezinbestean.

#### 4. GLOBALEAN PENTSATU, TOKIKO ESKALAN ERAGIN

Gaur egun ditugun **erronkak globalak dira, baina tokian toki aurkitu behar zaie soluzioa, tokian tokiko errealitate ekonomiko, sozial eta kulturaletik abiatuta.** Zentzu honetan, bizi dugun aldaketa sakoneko aro hau euskal gizartearentzat aukera paregabea da erronka globalekin konektatu eta erantzun propio bat ematearen bidetik gure herri identitatea gaurkotu eta modernizatzeko. Hori egiteko gai garela badakigu, lehenago ere egin izan dugulako. 60-70. hamarkadatik aurrera herri honek bizitako eraldaketa prozesuak (instituzionalizazioa, euskararen biziberritzea, ikastolen mugimendua, kooperatibagintzaren garapena, industria birmoldaketa, ...) gure herria modernizatu eta XX. mendetik XXI. mendera ekarri zuen. Prozesu honek bultzada berri baten beharra duela adierazten duten zantzu argiak daude, eta horretarako momentu sortzaile berri bat behar dugu, amets berri bat, gure identitateari zentzu berri bat eman eta belaunaldi berriak etorkizuneko herri eredu berriaren eraikuntzara batuko dituen.

Euskal lurraldeen luze zabalean, nonbaiten gorpuztu baldin bazen XX. mendeko erronkei emandako erantzun propio eta berritzaile hori **Debagoienan** izan zen. Gure lurraldean, komunitatearen ahalduntzea eta lanaren balio eraldatzailea erdigunean jarrita, **aberastasunaren bidezko banaketan oinarritutako lehiakortasun eredu propio eta arrakastatsu bat eraikitzen jakin izan dugu,** mundu mailan erreferentzia bilakatu dena. Esan dezakegu bailara honetan **asmatu genuela garapenaren dimentsio ekonomiko eta soziala modu berritzaile batean uztartzen,** eta jakin izan dugula lehiakortasunaren eta lankidetzaren arteko harreman orekatuago bat eraikitzen. **XXI. mendeko erronka berriei ordea gure eredu berrikusi eta ingurugiroari dagokion dimentsioa bertan txertatzera behartzen gaituzte.** Eredu berri honen gidatu behar du, hain zuzen ere, Debagoiena iraunkor baterantz gure bailarak abiatu behar duen trantsizioa.

#### 5. DEBAGOIENA 2030: GARAPEN IRAUNKORRERAKO SAREA

Debagoiena iraunkor baterantz trantsizioa gauzatzea erronka itzela da, eta erronka honi lankidetzaren bitartez soilik egin dakioko aurre. Erakunde publikoak, eragile ekonomikoak, ezagutza eragileak eta gizarte zibilak elkarrekin jardun behar dugu **diagnostiko eta agenda partekatu bat oinarri hartuta,** ditugun arazo konplexuei soluzioa bilatzeko ahaleaginean.

Urte bete pasa dugu komunitatea entzuten eta hainbat eta hainbat eragilerekin gure asmo, kezka eta ilusioak partekatzen, eta uste dugu bide berri bat abiatzeko moduan gaudela. **Bailara honek baduela nahikoa indar eta anbizio berezko duen eta mundu mailan erreferentzia bihurtu den eredu komunitarioan sakontzearen bidetik XXI. mendeko erronka berriei erantzun propio eta berritzaile bat emateko.** Argi dugu gure erroetan daudela mende berriak parez pare jarri dizkigun erronkei erantzunak bilatzeko gakoak. **Komunitatearen ahalduntzetik eta lankidetzeta oinarri duen berrikuntza ekosistema ireki baten artikulaziotik etorriko dira soluzioak,** eta hori da, hain zuzen ere,

Debagoiena 2030 ekimenak egin nahi duen ekarpena.

**Ez gatoz inor ordezkatzera, zubigintza egitera gatoz, pertsona nahiz erakundeen arteko konexioak sortzera,** konbentzituta baikaude sarean lan egiteak gure indar eta gaitasunak biderkatzen dituela. Eragiteko eta egiteko bokazioa duen sarea da sustatu nahi duguna, ez soilik ezagutza edo esperientziak partekatzera mugatuko dena. Horregatik, elkarren artean konektaturik eta elkar ekintzan arituko diren **proiektu eta ekimen berritzaileak sustatu nahi ditugu,** irudikatu dugun etorkizuneko ortzi-mugara iristeko beharrezkoak diren **aldaketa sakonak eragiteko potentziala izango dutenak. Herritarrok daukagun mundu ikuskera eta balioetan ere eragin nahi dugu,** aldaketa norberarengan hasten delako, ez dagoelako gizartea eraldatzerik gutako bakoitza aldatzen ez bagara.

**2.050 urtean** jarri dugu **ortzi-muga,** eta ordurako **adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena bat** irudikatzen dugu. Eta gure ekimenaren abizenak dioen moduan, 2.030 urtean jarri dugu tarteko lehen geltokia, ezin dugulako denborarik galdu, eta ordurako ortzi-muga horretara iritsi ahal izateko oinarriak jarrita izan behar ditugulako.

**Debagoiena** hartu dugu ekimen honen **subjektutzat** konbentzituta gaudelako ditugun erronketako asko modu eraginkorragoan landu daitezkeela eskualde eskalan, eta zentzu honetan, uste dugu asko daukagula irabazteko udalerrri bakoitzetik haratago eskualde gisa pentsatzen eta jarduten badugu. Joera orokorra den **metropolizazio prozesuak hirigune handiak indartu** eta hirigune horietatik kanpo gelditzen diren lurraldeak ahultzen ditu, eta gurean ere **Bilbo, Donostia eta Gasteiz** bezalako hirigune handiak **inbertsioak, jarduera ekonomikoa eta talentua erakartzeko** polo garrantzitsu gisa **gero eta indar gehiago** hartzen ari dira. Honen aurrean, **herri eskala txikiegia da hiriguneekin lehiatu eta lurraldea orekatzeko,** eta beraz, indarrak bildu eta elkarrekin jardun beharrean gaudela uste dugu. Gainera, konbentzituta gaude gure eskualdeak badituela beste askok ez dituzten indar-guneak, eta **Debagoiena hiri moduan pentsatu eta herrien**

**arteko sinergia eta osagarritasunak bilatzetik, gai izan gaitzkeela gure eskualdea ikasteko, lanerako nahiz bizitzeko toki erakargarri bilakatzeko.**

**Adimentsua** diogu herritarrek erdigunean jarriko dituen lurralde inteligentea izan nahi dugulako. Jakina da **digitalizazioak eta honi lotutako berrikuntza teknologikoek aldaketa sakonak eragingo dituzte lan munduan,** eta guk, aldaketa horiek guztiak pertsonak erdigunean daudela egin nahi ditugu. **Baina digitalizazioaren inpaktua ez da lan mundura mugatuko,** administrazio publikoan kudeaketan nahiz hauek herritarrekin harremantzeko moduetan ere aldaketa sakonak eragingo ditu, eta lankidetzaren eredu berrietarako ateak ireki ditzake. Guk, **datuak eta teknologia berri hauek komunitatearen ongizate eta garapenaren zerbitzura** jarri nahi ditugu, konbentzituta gaudelako, gure lurraldeak berezko dituen giza baloreekin egoki uztartuz gero, boterea demokratizatu, komunitatea ahaldundu, produkzioa sistemak iraunkoragoak bihurtu eta harreman ekonomiko justuagoak eraikitzeke tresna baliagarriak direla.

**Inklusiboa** izatea nahi dugu denon artean eraikitako eta denontzako izango den bailara bat irudikatzen dugulako, **Debagoiena iraunkor baterantz abiatuko dugun trantsizioa justua eta inklusiboa izatea nahi dugulako, inor baztertu edo atzean utziko ez duena,** eta pertsonen arteko **berdintasuna** izango duena **aspirazio** gisa. Uste dugu **emakumeak protagonismo berezia** behar duela eraldaketa bide honetan, **gizonok eraikitako gizarte eredu deseraikitzeaz ari garelako** neurri handi batean. Kualifikazio baxuko lanpostuen desagerpenak ezaugarritutako testuinguru batean, **bereziki arduratzen gaitu lan merkatuan tokia aurkitzeko zailtasunak izan ditzaketen gizarte sektoreen inklusioak,** sinetsita gaudelako **lana dela, hezkuntzarekin batera, inklusiorako palankarik eraginkorrena.** Gizarte justu eta humano baten eraikuntza izan da gure bailarak azken 60 urteetan bizi izan duen eraldaketa prozesuaren ametsa, eta irudikatu dugun ortzi-mugarako bidean ere, **inklusioa** izan behar da **gure komunitatea egituratuko duen oinarritzko printzipioa.**

Eta azkenik, **ingurune naturalarekin orekan** biziko den Debagoiena bat irudikatzen dugu, eta horretarako, naturarekin daukagun harremana birpentsatu beharrean gaude. Urte luzez jardun dugu naturaren parte izango ez bagina bezala, eta orain konturatzean hasiak gara ekosistema naturaletan egoki txertatu ezean gizadiak ez daukala etorkizunik. Horrek oso barneratuak ditugun ideia asko zalantzan jarri eta pentsatzeko nahiz egiteko moduetan aldaketa sakonak abiatzera eraman behar gaitu. 2.050 urterako **klima neutraltasuna** lortuko badugu, **erregai fosiletan oinarritutako ekonomia eredu lineal batetik tokiko energia berriztagarrietan oinarritutako ekonomia eredu zirkular batera igaro behar gara**, eta horretan jarri nahi ditugu gure ahaleginak.

Debagoiena 2030 ekimena abiatzen dugun eragileen **aspirazioa da** etorkizuneko ikuspegi hau errealitate bihurtuko duen **eraldaketa mugimendu bat sustatzea**, mugimendurik gabe, ez baitago eraldaketa posiblerik. Hori dela eta, gure **ekimenaren bereizgarri nagusia** izango da **komunitatearen etengabeko entzute eta ulertze sakon bat** izango duela **oinarrian**, konbentziturik gaudelako harreman eta ezagutza sakon horretatik soilik eragin dezakegula pertsonen mundu ikuskera eta balioetan, ahaldundu ditzakegula herritarrak eta sortu ditzakegula mugimendua eragiteko adinako indarra izango duten eragile nahiz norbanakoen arteko konexioak.

#### Laburpena

- **BISIOA:** Lurraldearen garapen komunitarioan sakonduz, 2.050 urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena.
- **MISIOA:** XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propio bat emango dien eraldaketa mugimendu bat sustatzea, eragile nahiz norbanakoen arteko konexioak eginez, pertsonen mundu ikuskera eta balioetan eraginez eta erronkei erantzuteko inpaktu esanguratsua izango duten ekimen eta proiektu berritzaileak bultzatuz.

## 6. DEBAGOEINA 2030: ERRONKA NAGUSIAK

Lehenago aipatu bezala, Debagoiena 2030 ekimenak berrikuntza irekiko ekosistema moduan jardungo du, eta gizarte berrikuntzatik datozen prozesu eta metodologiak baliatuko ditugu modu interkonektatuan jardungo duten askotariko prototipoen portfolio bat eraiki ahal izateko. 2019. urtean zehar batez ere komunitatea entzuten aritu gara, gizarte erronka nagusiekiko duen pertzepziora lehenengo hurbilpen bat egin, eta hortik abiatuta, gaien eta eremuen inguruko lehenespen bat egin ahal izateko. Entzute fase ireki honen ondorio gisa, erronka hauetan sakontzea proposatzen dugu:

### Lanaren etorkizuna

Pertsona erdigunean jarri eta komunitatearen garapenarekin konprometitua dagoen enpresa ulertu eta egiteko eredu jakin batek eraldatu du, instituzio publikoen ekarpena ahaztu edo gutxietsi gabe, Debagoienako gizartea azken 60 urte hauetan. Eta hau aipatzen dugunean ez gara soilik kooperatibez ari, formula juridikoaz haratago, enpresa ulertu eta egiteko moduz ari gara, lana pertsona nahiz komunitatearen garapenerako lanabes garrantzitsuena dela sinetsi duen gizarte ikuskera jakin batez, hain zuzen ere. Lanaren balioaren inguruko ikuspegi hau dago bizi izan dugun eraldaketa prozesuaren oinarrian. Eta horrela izatea nahi dugu etorkizunean ere. Lana eta enpresak gizartean duten zentzua XXI. mendeko begiradatik berrinterpretatu eta ditugun erronkei erantzuna ematearen zerbitzura jarri nahi ditugu berriro ere.

Lanaren munduak aldaketa disruptiboak jasango ditu hurrengo hamarkadan, besteak beste digitalizazioak, egungo negozioen balio erantsia handitzeko beharrak eta trantsizio berdeak eraginda. Erronka horien eragin konbinatuak funtsezko aldaketak eskatuko ditu, pertsonen, erakundeek eta komunitateek beren lan, berrikuntza, ikaskuntza eta babes sozialeko sistemak egokitu ditzaten.

Kalitatezko enpleguan oinarritutako lanaren bitartez gizartea eraldatzen jarraitu ahal izateko lau esparrutan modu koordinatuan jardutea eskatzen du: **(1) Egungo negozioen eraldaketa:**

marjina txikiko negozio helduetatik etorkizuna bermatuko duten negozio digitalizatu eta iraunkorretara eraldaketa gauzatzea **(2) Aktibitate berriak sustatzea:** Sektore emergenteetan aktibitate eta enplegu berriak sortzea, gizarte erronka berriei erantzuna eman eta sektore heldu eta tradizionaletan desagertuko diren enpleguak ordezkatzeko **(3) Enplegagarritasuna eta birkualifikazioa:** pertsonen enplegagarritasuna eta etengabeko birkualifikazioa sustatzea, langile bakoitzaren erantzukizun aktiboa oinarri izango duen etengabeko prestakuntzarako aldaketa sustatuz **(4) Eraldaketarako ekosistema:** Enpresen eraldaketa ezberdinak (negozio ereduarena, teknologikoa, antolaketazkoa, kulturala, ..) azkartzeko bailarako berrikuntza ekosistema indartzea. Horretarako beharrezkoa izango da bailarako eragile ezberdinen arteko loturak sendotu eta ekosistema hau nazioarteko sare ezberdinekin konektatzea.

Azkenik, **gizarte erronka berriei lotutako aktibitateek** (zahartzea, tokiko elikagaien ekoizpena, energia berriztagarriak, ...) **esklusio arriskuan dauden pertsonen laneratzeko aukerak emateko daukaten potentziala baliatu nahi dugu**, biziko dugun eraldaketa sakon honetan inor atzean gelditu ez dadin.

## Hezkuntza

Hezkuntza elementu gakoa da edozein eraldaketa prozesuaren garapenean. Eduki jakin batzuk transmititzeaz haratago, mundu ikuskera berri bat transmitituko duen hezkuntza berri bat behar dugu, ditugun erronka konplexuei aurre egiteko gaitasuna izango duten pertsonak heziko dituenak: Kritikoak, lankidetzan jarduten dakitenak, ekintzaileak, arduratsuak, solidarioak, konprometituek, etb. Gaur egun oraindik ere indarrean den hezkuntza sistemak berrikuntza sakonak behar ditu garai historiko honetan dagokion funtzio garrantzitsua egoki bete ahal izateko, eta bailara honek badauka esparru honetan ere aitzindari izateko potentziala. Izan ere, esperientzia oso interesgarriak ematen ari dira jada. Esperientzia ezberdin horiek eskualdeko eraldaketa prozesuarekin konexioan jartzea izango da D2030-en beste helburuetako bat.

## Energia

Erregai fosilek sustengatu dute gure gizartearen garapena azken 200 urte hauetan, eta honen ondorioz atmosferara isuri dugun karbono guztiak gure planetaren erresilientzia gaitasuna muturrera eramane du, ondorio suntsigarriak izan ditzakeen klima aldaketa bortitz bat sortzeko arrisku larria parez pare jartzeraino. Zentzu honetan, Debagoienak erregai fosilekiko duen menpekotasuna ia erabatekoa da, eta beraz, erregai fosiletatik energia berriztagarrietarako trantsizioa egitera behartuta gaude. Arazo moduan ikusi beharrean, aldaketa hau aukera paregabetzat ikusten dugu lurraldearekin eta ingurune naturalarekin ditugun harremanak birpentsatu eta garapen komunitarioan sakontzeko. Energia berriztagarrien izaera lokal eta banatuak erregai fosiletan oinarritutako ereduak posible ez ziren aukerak zabaltzen ditu berezkoa dugun eredu komunitarioan sakondu eta, inor atzean utzi gabe, tokiko eragile nahiz norbanakoak trantsizio energetikoan inplikatzen. Eta ikuspegi honetatik heldu nahi diogu guk energiaren erronkari, energia trantsizioak badaukalako mugimendua sortu eta elikatzeko potentziala.

## Ekonomia zirkularra

Gure garapen eredu iraunkorra izatea nahi badugu, lineala den eredu ekonomiko batetik zirkularra izango den beste eredu batera igaro behar gara. Materialak finituak dira, eta ondorioz, ezin gara etengabe material berriak produkzio sisteman txertatzen aritu. Hori dela eta, materialen erabilera efizienteago bat egin eta erabilitako hori berreskuratu eta berrerabili edo birziklatzera behartuta gaude, materialen zikloak ahalik eta eremu geografiko hurbilenean ixten saiatuz. Zentzu honetan, gure bailarak dituen aukerak aztertu eta norabide honetan sakonduko duten ekimenak sustatu nahi ditugu.

## Mugikortasuna

Badakigu Debagoienan garraioa dela, eraikinekin eta industriarekin batera, CO<sub>2</sub> isurketen eta aire kutsaduraren erantzule nagusia. Egunero ematen diren desplazamendu guzti horietatik zati handi bat bailara barruan ematen diren

desplazamenduak dira, eta beste lurralde batzuekin konparatuta, auto pribatua erabiltzeko ohitura oso errotua dago gurean. Eredu hau goitik behera eraldatu eta garraio partekatuan eta elektromugikortasunean oinarritutako eredu berri bat sustatu nahi dugu, konbentziturata gaudelako horrek hobetu egingo duela gure herrien bizitza kalitate eta segurtasuna, eta eskualdea egituratzen lagunduko duela. Era berean, oso kontziente gara eraldaketa horren protagonistak pertsonak izan behar direla, hau da, ezin dela goitik behera inposatu, behetik gora eraiki behar dela bidean pertsonen mundu ikuskera eta balioetan eraginez.

### Elikadura

Gure gizarteak gero eta garrantzia handiagoa ematen dio elikadurari, eta gero eta pertsona gehiago gaude elikagai osasuntsu eta iraunkorrak kontsumitu nahi ditugunak. Elikagai bat osasuntsua eta iraunkorra den jakiteko non eta nola produzitua izan den begiratu beharra dago. Gero eta hurbilago eta gero eta ekoizpen sistema naturalagoen bidez produzitua izan are eta

osasuntsuagoa eta iraunkorragoa izango da elikagai hori. Horregatik, distantzia laburreko ekoizpen-kontsumo zirkuituak eta elikagai osasuntsu eta iraunkorren kontsumoa sustatuko ditugu.

Bukatzeko, adierazi nahi dugu **ditugun erronka konplexuei nekez egingo diegula aurre erakunde ezberdinen nahiz herritarren konpromiso eta inplikaziorik gabe. Debagoienako erakundeak, eta bailaran bizi, lan eta ikasten duten herritarrak izan behar dira prozesu honen protagonistak**, eta horretarako, eragile nahiz ekintzaile jakin batzuk proiektu konkretuetan inplikatzear haratago, hala nahi duen pertsona edo erakunde oro mugimenduaren parte egiteko ekimen eta bitartekoak martxan jartzera konprometitzen gara.